

Azken 40 urteetan bizi-itxaropena 9,3 urtez luzatu da emakumeentzat eta 10,7z gizonentzat Euskal AEn

Hirugarren eta ondorengo seme-alabak %90 gutxiago 1976tik

Eustaten adierazle demografikoek diotenez, Euskal AEn jaiotako gizona 80 urte pasatxo biziko da, eta %46ko probabilitatez ezkondu egingo da. Emakumeak 86,2 urtez bizi; ezkondu %51ko probabilitateaz, eta 1,4 haur izan. Denentzat, 9 aldiz pasa aldatuko dira bizilekuz bizitzan.

Euskal AEko gizon zein emakumeek bizi-itxaropenaren etengabeko hazkundera izan dute. Orain 40 urteko adierazleak (69,6 urte gizonentzat, 76,9 emakumeentzat) ikusita, bizi-itxaropena 9,3 urtez luzatu da emakumeentzat eta 10,7z gizonentzat). Urtean-urtean 3,2 bizi-hil irabaziz, gizonena 80,3 urtetan da; emakumeena, 2,8, 86,2tan. Bi sexuen arteko aldea orain 25 urteko 8,7ko maximotik 5,9 urtera laburtu da. Lurralde garatu gutxi dute horrelako bizi-itxaropenik, batez ere emakumeentzat.

Tumoreak –etsai nagusia- erabat desagertuko balira, gizonen bizitza 4,5 urtez luzatuko litzateke, eta emakumeena 3,1ez. Kanpoko heriotza-kausek berriz, 9 hil kentzen diote gizonen bizitzari eta 3 emakumeenari. Trafiko istripuak –kanpo kausa-aintzat, bi hileko murrizketa gizonentzat eta batere ez emakumeentzat.

Ugalkortasunak oso baxu dirau

Euskal AEko ugalkortasuna oso txikia gure ingurukoaren aldean. 2016an seme-alabak 1,4 dira batez beste; 1976an 2,7. Belaunaldi ordezkatzeko 2,1 behar dira. Ugalkortasun baxuena, Bizkaian, 1,3 haur emakumeko; 1,5 Araban; 1,4 Gipuzkoan.

Batez besteko emakumeak 0,7 lehen haur izango ditu; alegia, emakumeen herenak haurrik ez; 0,5 bigarren haur eta hamarretik batek hirugarren edo ondorengo bat. Hirugarren eta ondorengo seme-alabak %90 gutxiago 1976tik.

Ama izateko batez besteko adina, oso antzekoa hiru lurraldeetan, 33 urte, 1975ean baino 4,8 gehiago. Adin horren bueltan, jaiotza asko pilatzen da.

Ezkontza tasa beheraka

2001ean, lehen ezkontzan gizonen %56,1 eta emakumeen %59,5 genituen; gaur egun %46,3 eta %50,8. 2016ko ezkontza-tasak bere horretan badirau, gizonen %54 eta emakumeen erdia baino zerbait gutxiago ez dira sekula ezkonduko. Orain 40 urte pertsonen ia %100 ezkontzen zen.

Lehen ezkontzaren adina goraka: 36,8 urte gizonentzat (1975ean baino 10,1 urte gehiago) eta 34,6 emakumeentzat (10,4 urte gehiago).

30-35 urte bitartean gizonen %41,1 ezkontzen da; 29-34 bitartean emakumeen %45.

Batez beste Euskal AEko biztanleak 3,5 migrazio egiten ditu bizitzan zehar

Normalean probintzia bereko beste udalerrri batera (3,5etik 1,8tan gizonentzat; 1,8tan 3,3tik emakumeentzat). Euskal AEtik kanpora, 1,3 migrazio pertsonako eta batez beste (guztien %40 ia). Lurralde artean, %9.

Arabak 2,7 migrazioko indizea; Gipuzkoak 3,4; Bizkaiak 3,6. Aldeak probintzia arteko mugikortasunagatik dira. Halakoak Gipuzkoak 1,8 ditu; Bizkaiak 2,1; Arabak 0,8 hiriburuan kontzentrazio demografiko handia dagoelako. Lurralde artean, Arabak pertsonako 0,4 mugimendu ditu; beste bi lurraldeetakoak bi aldiz ia.

Hiru lurraldeen artean mugitzen diren gizonen batez besteko adina, 32,7; emakumeena 33,3. Euskal AEtik kanpora doazenak zaharragoak dira: batez beste gizonak 34,7 urte eta emakumeak 34,9.

Udalerrian bertan, Arabak 7 mugimendu batez beste; Gipuzkoan mugikortasun txikiena.

Migrazioak eta helbide-aldaketak baturik, udalerrri barruan eta kanpora, bizitzan zehar bederatzi bizileku aldaketa.

Euskal AEko 2015/2016 Adierazle Demografikoak

Hilkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biziitxaropena jaiotzerakoan	80,3 urte	86,2 urte
Kanpo-kausarik gabeko bizi-itxaropena	81,2 urte	86,5 urte
Trafiko-istripurik gabeko bizi-itxaropena	80,5 urte	86,2 urte
Tumorerik gabeko bizi-itxaropena	84,8 urte	89,3 urte

Ugalkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Emakumezkoak	
Emakumeko batez besteko haur-kopurua	1,4	
Lehenengo heinekoa	0,7	
Bigarren heinekoa	0,5	
Hirugarren eta ondorengoak	0,1	
Amatzeko batez besteko adina	32,9 urte	
Lehen jaiotza	31,9 urte	
Bigarren jaiotza	33,9 urte	
Hirugarren eta ondorengoak	34,2 urte	

Lehen ezkontzaren adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
100 pertsonako batez besteko lehen ezkontza kopurua	46,3	50,8
Lehen ezkontzako batez besteko adina	36,8 urte	34,6 urte

Emigrazio adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Emigrazioen batez besteko adina	3,5	3,3
Euskal AEtik kanpora	1,4	1,2
Lurraldean bertan	1,8	1,8
Beste lurralde batera	0,3	0,2
Udalerrri barruko helbide aldaketak, batez beste	5,9	6,1
Emigratzeko batez besteko adina	33,6 urte	33,9 urte
Euskal AEtik kanpora	34,7 urte	34,9 urte
Lurraldean bertan	32,7 urte	33,3 urte
Beste lurralde batera	34,2 urte	33,6 urte
Helbidez aldatzeko batez besteko adina	32,7 urte	33,4 urte

Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62